

PRENTSA OHARRA

Mater Ontzi Museoak irabazi du ATRAE 2021 saria

- Euskadiko Turismo Agentzia Hartzaille Elkartuek (ATRAE) proiektu “berritzailea” nabarmendu dute, “ingurumen-lan handia” egiten dutelako.
- Aipamen berezia Juan del Hoyori dagokio, 18 urtez Azul Marino Viajes enpresako CEOa izan baita, ATRAEren fundazioko lehendakari eta sustatzaile izateaz gain. Epaimahaiak “helmuga sustatzen eta merkaturatzen egin duen ibilbide profesional luzea” baloratu du.
- Sariak gaur banatu dira Orona Ideon, sektorearen erronka berriei buruz ere eztabaidatu duten ekitaldi batean, nazioarteko turismoa Euskadira iristeko une zailean.

2021eko azaroaren 24a

Euskadira iristen den atzerriko turismoa erakartzen lan egiten duten agentziek Euskadi gero eta helmuga erakargarriagoa izan dadin laguntzen duten erakundeak edo pertsonak saritzen dituzte urtero. Aurten, ATRAE Saria Mater Ontzi Museo Ekoaktiboarentzat izan da. Egurrezko azken euskal bonitera handia da, itsas gaineko museo flotagarri bihurtua, Pasaiako portuan (Gipuzkoa) oinarria duena. Gizartea ingurumena zaintzen eta babesten inplikatzeari bere helburua. ATRAE Sariaren epaimahaiak bere lana nabarmendu du, eta gaur banatu da Orona Ideoko (Hernani) instalazioetan.

Ekitaldian izan dira enpresa elkartuak, Lorea Uranga ATRAEko presidentea, Cristina Lagé Donostiako Turismo Iraunkorreko zinegotzia, Iker Goiria Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismoko zuzendari nagusia eta euskal turismo sektoreko beste hainbat profesional.

ATRAEko presidentek espero du jardunaldi hau “hasiera berri bat” izatea turismo hartzaillearen sektorearentzat, COVID-19aren osasun krisiak gehien kolpatu duena. “Une gogorra izan da guztiontzat, baina lanarekin turismo jasangarriagoa eta kalitate handiagokoa lortuko dugu”, adierazi du.



Cristina Lagé zinegotziak bere enpatia adierazi du ATRAE en ordezkatuta dauden enpresekin, “turismo osoan sektore kaltetuena hartzailea baita. Beste batzuek – hotelak, ostalaritza – atsedendialdiak izan dituzte, hurbileko bisitariekin. Hartzaileen agentziak, aldiz, nazioarteko turismotik bizi dira funtsean. Gure aurpegia zarete, gure ahotsa nazioarteko azoketan”, azaldu du Turismo Iraunkorreko Donostiako arduradunak.

Iker Goiriak, Aldunditik, eskertu egin du agentziek helmugara ekartzen duten “kalitatezko lana”, eta “zuen inplikazioa”. “Ikusten dudanez, eutsi egin diozue, egunero pertsiana irekitzen dutenak zuek zarete”, esan du, “hunkituta”.

Euskadiko Turismo Agentzia Elkartuek (ATRAE) emandako sari honek lau urte bete ditu, Euskadiko turismo-proiektzioan egindako ekarpenagatik nabarmendu diren eta, sinergiaren bidez, euskal agentzia hartzaileen lana bultzatzearen aldeko apustua egin duten entitate, enpresa, erakunde eta pertsonak aintzatesteko. Aurreko edizioetan, hauek izan ziren sarituak: Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbidea (2020an), aipamen berezia eginez Ekobideak-entzat; Villa Lucía Espacio Gastronómico (2019an), aipamen berezia eginez ETBko ‘¿Qué me estás contar?’ Saioarentzat; eta Bilbao Turismo (2018an), aipamen berezia Troka Abenturarentzat.

Oraingo honetan, Mater Ontzi Museoak “proiektu berritzailea” izateagatik lortu du saria, epaimahaiaren esanetan, “euskal arrantzaren eta marinelen ondare garrantzitsua berreskuratu eta balioetsi nahian”. Era berean, “garatzen dituzten jarduerak eta proiektuen bidez egiten duten ingurumen-lan handia” nabarmendu dute, “bai pertsona helduen zein haurren ingurumen-sentsibilizaziora eta -hezkuntzara bideratuta. Esperientzia horiek bisitaria eraldatzen dute, ‘ezagutu maitatzeko, maitatu kontserbatzeko’ lelopean”. Epaimahaiak gaineratu du jarduerak horiek “itsasoaren garrantzia eta ingurumenarekin dugun harreman estua ulertzen laguntzen digutela”.

Materren jarduerak bost gai jorratzen dituzte: itsasoko zaborrak, biodibertsitatea, klima-aldaketa, itsas kultura eta ohitura iraunkorrak. Epaimahaiak, gainera, ontzi-museoaren “espíritu kolaboratiboa” azpimarratu du, eta Izaskun Suberbiola zuzendariak jaso du saria.

Juan del Hoyo, aipamen berezia

Gaur egindako ekitaldian ATRAE aipamena ere banatu da, eta Juan del Hoyok jaso du, 18 urtez Azul Marino Viajeseko CEOak eta ATRAEren sorreraren presidente eta sustatzaileak. Epaimahaiak “bidaia-agentzien sektorean izandako ibilbide profesional

luzea” baloratu du, bai eta “Euskadin hartzaile gisa duen funtzio garrantzitsua ere, helmuga sustatuz eta merkaturatuz”.

Gainera, Euskadiko Turismo Agentzia Hartzaile Elkartuek aitortu egin dute elkarte bultzatzeko egin duen ekimena, “bai eta sektorea batzeko egin duen ahalegina ere, agentzia hartzaileak eta euskal turismoari ematen dioten balioa defendatuz egin duen lan garrantzitsua ahaztu gabe”.

“Halaber, nabarmendu nahi dugu elkarte eratu zenetik ATRAeko agentzia hartzaile guztiei eman dien babesa”, azaldu du epaimahaiak.

Sektoreko lankidetzaren garrantzia

Sariak banatzeaz gain, sektorearen erronka berriei buruzko eztabaida piztu du gaurko jardunaldiak, nazioarteko turismoa Euskadira iristeko une zail honetan. ‘Elarrekin ATRAErakargarriagoak garelako’ izenburupean egindako jardunaldian, Deustuko Unibertsitatean Ekonomia eta Enpresa Zientzietan doktore den, eta bertan eskolak ematen dituen, Asun Fernández Villaranen hitzaldi bat izan da. ‘Tokiko turismo-produktuak eta zerbitzuak merkaturatzearen erronka berriak’ izeneko hitzaldiak aukera eman du sektorearen erronkak hobeto ezagutzeko pandemiaren osteko ziurgabetasun une batean, nazioarteko turismoari dagokionez; bai eta sektoreen arteko lankidetzaz indartzeko beharra ikusarazteko ere. Jardunaldiaren amaieran, dinamika bat egin da talde-lanean, eta bertan, batera, Euskadiko turismo-merkaturatzea hobetzeko ezarri beharreko hobekuntza-neurriak identifikatu dira.

ATRAEri buruz

ATRAE 2014an sortu zen, eta Euskadiko turismo hartzaileko enpresen sektoreko talde garrantzitsuena da. Euskal agentzia hartzaileek helmugan balioa handitzen jarrai dezaten eta Euskadira kalitatezko turismoa erakar dezaten lan egiten du. Une honetan 29 erakunde ordezkatzeko dituzte, eta horien merkaturatzea, batez ere, nazioarteko turismoa da. Egunero bere lehiakortasuna hobetzea du helburu, lankidetzaz, konpromisoa, ekimena eta profesionaltasuna bezalako balioen bidez.

Informazio gehiago eta elkarrizketen kudeaketa:

Eduardo Ortiz de Arri

eortizdearri@gabineteseis.es

647 77 00 52